

ARTURO / FITO RODRÍGUEZ BORNAETXEA

Making of a langai gisa
(Ekoizpenaz, banaketaz eta hedapenaz)

Rodríguez Fundazioak azken urteotan landu dituen Artea eta elektrizitatea eta Tester proiektuetatik ateratako esperientzietan barrena ibilbide bat egiten du egileak. Testuan lan prozesuari eta goian aipatutako proiektuen hedapenari buruzko hausnarketa egiten du, eta oro har kultura garaikidearen ekoizpenari aplikatu dakizkion gaiak aztertzen ditu.

Mintzagai dudan honetaz idazteak azken urteotan gure lanaren antolakuntzan izan diren kontuak aztertu, egiaztatu eta kontrastatzea ekartzen du. Praktika horietan eskulangintzari eta industriari dagokiena, teknologikoa eta garatugabea dena, digitala eta analogikoa urtu egiten dira eta produktu kultural mugikor labaingarria eratu, batzuetan erabat besarkatzera iristen ez garena, gure eskarmenturik ezaren eta gure zorabioen artean irristatzen delako.

Kontu horietaz idaztea lur higikorretan barna sartzea da, baina daukazuarekin zeharkatu behar dituzu nolabaiteko distantziatik egindako proiektuak ikusi ahal izateko. Zeharkaldi hori proiektuaren beraren luzapen gisa ikustea da plan berriak zirriborratzen hasteko bide bakarra.

Hiru gauza.

Gaur egungo arteari begiratu bat emanda, ikusten da, besteak beste, ekoizpena, banaketa eta hedapena txertatuta agertzen direla proiektu garaikidean, eta hiru kontzeptu horien artean gertatzen diren erlazioek eta interferentziek erabakitzen dutela haren benetako proiektzioa gizartean, arte munduan eta hirurak elkartzen dituen horretan.

Proiektzio horrek neurri handi batean biratzen badu aipatutako hiru ardatz horien gainean, zeinak beren aldetik testuinguru soziologiko, ideologiko eta politikoak hornitutako euskarrietan bermatzen baitira, beharrezkoa dirudi onartzea poluzioak eta kutsadurak direla arteak sortzen dituen diskurtsoen ezaugarri nagusia.

Konplexutasun horrek berriro hitz egiten digu maila oso desberdinetan lan egiteko premia, zeharka, batzuetan erantzukizun izugarri batetik abiatuta eta horizonte horrek guztiak eskaintzen dituen indar harremanak nahitaez ulertuta.

Sekuentzia.

Gisa honetako ingeniariak edozein ekimen sortzailek beharrezko duen intentsitatea gutxitu gabe, beharrezkoa ematen du ekoizpena, banaketa eta hedapena opari baten paperezko bilgarria bezala zabalduko litzatekeen sekuentzia logiko moduan ulertzea.

Hartara, produkzio ideia paradigma aldaketari lotuta aurkituko genuke, giro kritiko berri oso bati lotuta, gogoeta egin duena lanaren esanahiaz egungo postfordiar garaian eta erakutsi duena hiru ekintza mota -lanarena, politikarena eta artearena-, lehen lotu gabe agertzen zirenak, orain bat datozela jarrera berean, eta funtsezkoak direla edozein ekoizpen prozesutan.

Jarraian, banaketa “ikusgaitasun” ideiar, “iristeko” gaitasunari eta begiradaren konkista irrikatuari lotuta dagoen jarduera gisa ulertuko genuke. Kasu askotan, banaketan presesi amaitzen da arte proposamena, ikusgaitasun horixe nagusitzen baita agertokian, eta fokua bereganatu.

Beste kontu bat da arreta konkistatzea: horrek seduzitzeko gaitasunarekin du zerikusia, eta horren arrakastak, “hedapenari” estuki lotuta, ahalbidetu egingo luke, urrats bat gehiago eginda, bidea zabaltzea iritziei, aburuei... azken batean, eztabaidari.

Banaketak paketea helarazten du; lotu egiten du produktua balizko kontsumitzailearekin.

Sekuentzia osatzen saiatuta, hedapena zelanbaiteko “igorpen” moduan uler liteke, mezua “kanporatzea” bezala. Eta mezu hori, ekoizpen prozesuan inskribatua izan zena eta euskarri batean edo dena delako eran bidaiatu zuena, hortxe sortzen da, hortxe jardun eta proiektatzen da.

Esan liteke, hartara, hedapena sekuentzia horretako estadio gorenari legokiokeela, kanal, frekuentzia, pista, programa jakin batzuen sarbidea aurkitzea ekartzen duelako, baina, gainera, proposamenaren edukia aurrera bultzatzeko, haren eratzaileen gogoetatik haratago, erabiltzea ekartzen duelako.

Hedatua edo igorria izatea mezuarekin “iristea” da (ezer esatekorik baldin bazegoen), eta horrek ekartzen du “igorle-hartzaile” eskema zaharra hartuz joan den konplexutasuna salbatu besterik nahi ez zuen prozesua arrakastaz burutzea.

Paketea zabaldu, oparia aurkitu eta haren balioa ulertzen den unea da hedapena.

Jarraitutasunik eza.

Aipatu sekuentzia proiektu baten denborak antolatzen saiatzen den era berean, jarraitutasunik ezak haren ezgaitasunak edo gabeziak agerian utz litzake, baina jarduteko eszenatoki desberdinak eta susmatu gabeak ere eskain litzake. Espazioak, eztabaidaguneak eta hartzaileak, ibilbidea marratzeko orduan kontuan hartu izan ez ziren adarretan ustekabeak agertu direnak.

Jarraitutasunik eza langai moduan hartuta aprobeixagarria ere izan daiteke, berez helburu izanda. Infiltrazioak, kamuflajeak, baita zenbait estrategiak eta taktikak ere, proiektu baten planteamendutik abiatuta zalantzan jar lezakete serie edo maiztasun kontzeptu hori biderkagaien ordena azpikoz goratzean edo haiek proposamen unitario gisa txertatzean.

Hala, artetik sortutako zenbait proposamenen atzean zuhurtzia logiko bat ageri da, merkaturatzeraz eramango duten funtzionamendu mekanikoetan ez erortzeko, bai lilura eutsiezin bat ere azkenean proiektua enpresa-jardueraren eskuetan jartzen amaitzen duten halako harremanetan.

Lur labainkor horren gainean ibili gara gutako batzuk patinatzen batzuetan, jakinaren gainean egon arren. Lan bat ezagutzera emateko premiak bultzatuta mugitu gara, baina beste “produktu” bat ez izateko ardura hartuta. Gure lanaren zigilu kultural edo artistikoari eutsi nahian, baina begi-bazterraz banaketa komertzialari begira. Ahalik eta urrunenera iristeko gogoak gidatu gaitu, baina zein ibilgailutan jakin gabe, eta igortzeko (transmititzeko) premiak bultzatu gaitu, baina aldeaz aurretik iristen jakin izan gabe. Eta hainbat eta hainbat alditan norengana iritsi behar den jakin gabe eta nola transmititu jakin gabe.

Anti-labaingailuak.

Ekoiztea nork bere burua azaltzea ere bada, esan nahi dena hitzaren bidez esatea. Hemen, pentsamendu ekoizpenean, sarearen ideia ekoizpena, banaketa eta hedapena batzeko gai den fenomeno izan da. Hala, “sare” irudia egoera jakin batzuetan adierazita agertzen da ekoizpen prozesu berrien etapa eboluzionatu moduan. Haren ikusizko erakarmenak, arreta erakartzeko gaitasunak, aipatze hutsak adierazten duen soiltasunagatik zein egonkortasunagatik dela, konfiantzazko etiketa moduan funtzionatzen duela dirudi, beharbada kontzeptuaren garaikidetasunagatik.

Sarea, ordea, ez da iristen euskarri fisikoa behar duen produktu bat dagoenean desira zitekeen bezain tenkatua izatera. Izan ere, saretik dena banatu eta igorri ahal izatea denbora kontua izan arren, badago antsietate sortzaile berri bat, egoera horrexetatik sortua, kultura ekoizleak irtenbide misto eta eguneragarriak bilatzera behartzen dituena.

Eta honela, honezkero “gaindituta” zegoela uste genuenean, arreta objektuan jartzen da berriro. Beste objektu bat da, egia, aurarik gabea, nahiz kanonik ez falta izan, baina azken batean objektua, bere erreproduzigarritasunetik abiatua eta ekoizpen prozesuaren abiaraztetik bertatik, bere bidaian, bere etorreran, bere egozte transmititzailean pentsarazten duena...

Nola txertatu gure objektua “gurea” ez den sare konplexu bestelako horretan? Banaketa sare gogorra da, blindatua, ezin saihestuzkoa. Nola erabili geure sare kultura produktuen zirkulazioa ahalbidetzeko?

Esperientzia baliatuta, sare “tenkatu” batean pentsatu behar dugu, produkzio, banaketa eta hedapen sekuentzia bere egingo duena.

Esperientzia baliatuta, proiektu berri bakoitzean hartzailerekin pentsatu behar dugu, pertsona eta herritarrekin (kontsumitzaileak bihurtu baino une bat lehenago), ikusle posibleekin pentsatu behar dugu, edo agian ikusle berriak sortzeko moduetan. Proiektu berri bakoitzean eragina duten esparruetan eta esparru eraginerrazetan pentsatuko dugu, bertan lanean aurrera egiteko. Beste iritzi asko beharko dira, aurreko ekoizpen formularen aldean aurrerapen bat izaten saiatuko direnak (eta horrek etengabe lan egoera ebaluatzen behartzen du), eta banaketaren eta hedapenaren arteko harremanak eguneratzeko aukerak zabalik izango dituztenak.

Beharrezkoa izango da halaber irradiazio formula berrietan sinestea, sentiberatasunak elkarlotu eta gure irrikin sarean kimu berriak sortzeko dituztenak.

Alexis Vaillant-ek, Matthieu Laurette-ren lanaz ari dela, honako hau dio:
"Artistek frogatzen digute jokoan dagoena hedapen-espazioaren izaerari berari dagokiola batik bat".

Emanazio agian utopiko horrek, zeinean mezu emantzipatzailea erabilitako medioarekin nahasiko bailitzateke, eta kalitate sortzailea eta harrera-eraginkortasuna bat egin arte nahasiko lituzkeenak, arte proiektuari masa-komunikabideen aldean daraman atzerapenaren konpentsazioa emango lioke neurri handi batean.

Ezbairik gabe, hedapen-espazioaren funtsean bertan lan egin behar da, zeren Franco Berardi "Bifo"k dioen moduan: "Komunikazioa ez da ekintza politikorako tresna, ekintza politikoa bera baizik", baina ezin ahantz dezakegu paketea helarazi egin behar dela, eta zabaldu.

Hor nonbait, opari bat duzu zain.

Testu hau benetako gertakarietan dago oinarrituta: *Arte y Electricidad* (www.artyelectricidad.net) eta *Tester* (www.e-tester.net) proiektuetan izandako esperientzia, biak Fundación Rodríguez-enak eta Artelekuk ekoitziak.

Arturo/Fito Rodríguez Bornaetxea Rodríguez Fundazioaren kidea da (www.fundacionrdz.com).

CC

Aldizkari hau Attribution-NonCommercial-ShareAlike gisako Creative Commons lizentzia baten mende dago. Hemengo testuak nahiz itzulpenak kopiatu, banatu eta jende aurrean erakuts ditzakezu irabazi asmorik gabe baldin bada. Horrez gain, hemendik eratorritako lanik sortzen baduzu, lizentzia beraren mende egin behar duzu. Lizentzia osorik irakurri nahi baduzu: <http://creativecommons.org/licenses/index.html?lang=eu>